

Lanparatxo miresgarria

Nire izena Mikel da eta niri gertatu zitzaidan gauza harrigarri bat kontatuko dizuet.

Dena parkean hasi zen, duela bi aste. Nire lagunekin nengoen: Jonekin, Aizpearekin, Gorkarekin eta Enekorekin. Oso lagunak gara denok, baina elkar zirikatzea gustatzen zaigu. Horregatik, azkenean, Enekok haserreturik gure aldetik ihes egitera zihoanean urrezko harri bat aurkitu zuen lurrean.

-Etor zaitezte- deitu zigun.

Iritsitakoan harria hartu genuen. Baina ez zen harri bat, lanparatxo bat baizik.

-Igurtz ezazue ea jenioa ateratzen den- proposatu nuen.

Baina ez zen ezer ez gertatu. Orduan Aizpeak esan zuen:

-Hemen zerbait jartzen du.- esan zuen lanparatxoaren tapari begira- "Laster ezagutuko duzuen toki batera zoazte, baina kontuz! berriro hona bueltatzeko honako asmakizun hau asmatu beharko duzue: <<Ez naiz ezer eta badut izena, beti nabil zurekin nahiz izan argala edo gizena>>"

Eta hau irakurri bezain laster mundu harrigarri batean azaldu ziren.

-Zer da hau? Non gaude?- hasi zen aztoratzen Gorka.

-Goazen buelta bat ematera ea zerbait ikusten dugun- esan zuen Jonek.

Orduan dinosauro bat ikusi genuen, oso dinosauro ederra. Iguanodona zen. Gero trizeratopsak, lepaluzeak, edmontosaurusak eta diplodokusak ikusi genituen. Baina bapatean pauso erraldoi batzuk entzun genituen. Tiranosauroa zen! Orduan gure atzetik korrika hasi zen.

-Hau agertu behar!- hasi zen protestatzen Eneko korri egiten zuen bitartean.

-Goazen etxera- proposatu nuen.

-Ongi, baina zein da erantzuna? A bai, sabela izan daiteke ez? -galdetu zuen Aizpeak.

-Ba izan liteke- komentatu genuen guztion artean.

-Ba orduan hori da erantzuna!-esan zuen Gorkak.

Eta bat-batean desagertu egin ginen. Beste toki arraro batean geunden berriro oraingoan.

-Zer gertatu da? Ez gaude parkean.-esan zuen Jonek harriturik.

-O ez! Gaizki esan dugu!- kexatu zen Jon.

-Egia! Non ote gaude?-esaten zuen Enekok.

-Begira lanparatxoa lurrean dago!- harriturik esan zuen Gorkak.

Lanparatxoa hartu eta tapa begiratu genuen. Honako hau jartzen zuen: "Asmakizuna gaizki erantzun duzue: Jupiter planetara iritsi zarete eta hemendik ateratzeko beste asmakizun hau asmatu beharko duzue:<<Oso berezia naiz: deitzen banauzu hil egiten naiz>>"

-Eta zer izango da asmakizun hau?-galdetu zuen Aizpeak.

Denak isilik geratu ginen.

-Ez dakigunez, goazen buelta bat ematera planeta erraldoi honetatik- bururatu zitzaidan.

-Ongi!- esan zuten denek nire proposamena onartuz.

Paseatzen genbiltzala munstro txiki eta itsusi bat agertu zitzaigun.

-Kaixo, terrikolak, ongi etorri Jupiterrera- esan zigun.

-Gure hizkuntza hitz egiten duzu eta!- esan genion pozaren pozez.

-Guk hizkuntza guztiak dakizkigu eta gainera badakizkigu terrikolak nongoak diren desberdintzen- esaten zigun aurpegi interesantea jarritz.

-Pena bat da momentu honetan etortzea. Martiztarrak Jupiter konkistatu nahi dute eta gutxien espero dugunean etorri eta platerxo hegalarietatik tiroak botatzen dituzte- kontatu zigun.

Halako batean, izugarrizko hotsa entzun zen.

-Beraiek dira, korri, terrikolak, ezkutatu egin behar dugu!- esan zigun jupitertarrak erabat larriturik.

Handik ordu erdira martiztarrak joan egin ziren.

-Ikusi dudanez tiro laserrak dira; hau da, argidunak. Zuek ez al duzue armarik?-galdetu zuen Enekok.

-Bai, baina beraienak baina hoge aldiz ahulagoak- erantzun zuen jupitertarrak.

Orduantxe Enekok ispilu bat atera zuen poltsikotik.

-Bota ezazu tiro bat hona- esan zuen Enekok ispilua seinalatuz.

Jupitertarrak tiro bat bota eta ispiluan errebotatu egin zen berarengana joanez.

-Kontuz!- kexatu zen jupitertarra tiroa saihestuz.

-Baina ikusi duzu nola egin dudan, ez? Argiak ispiluan errebotatu egiten du eta orduan bestearengana joaten da argia- esplikatu zuen Enekok.

-Zuek bai azkarrak!-esan zuen pozik.

Etxe guztietako ispiluak bildu eta erraldoi bat sortu zuten. Hurrengo egunean martiztarrak berriro azaldu ziren. Tiroak botatzen hasi ziren bezain laster guk oihukatu genuen:

-Orain!

Eta orduantxe ispilua zutik jarri eta tiroak beraingana itzultzen hasi ziren.

-Ai, ai, ai!- esaten zuten martiztarrek.

Denak barre algaraka zeuden. Azkenik garaitu zituzten martiztarrak eta dena guri esker.

-Eskerrik asko, terrikolak! Nola eskertuko genizueke?

Gorka ez zela ezer esatera zihoan baina nik ahoa tapatu nion ideia hobeago bat izan bait nuen.

-Ondoko asmakizun hau erantzuten laguntzen: <<Oso berezia naiz deitzen banauzu hil egiten naiz>>

-Ez da batere erraza, baina uste dut badakidala erantzuna: Isiltasuna- esan zigun gure lagunak.

-Noski! Deitzen baduzu hil egiten da. Eskerrik asko lagunok- eskertu genien.

Orduan denok batera oihukatu genuen:

-Isiltasuna!

Eta desagertu egin ginen. Agertu ginenean toki arraro batean geunden. Lurrean geunden, baina ez zen Euskadi.

-Nire ustez oraingoan ongi erantzun dugu- esan zuen Aizpeak guztiz harriturik.

-Gainera lanparatxoa hor dago- esan zuen Jonek.

-Goazen, ea zer gertatu den oraingoan!- esan zuen erabat atsekabeturik Gorkak.

Lanparatxoa hartu genuenean tapan begiratu genuen eta zerbait jartzen zuen: "Ez dakit barkatuko didazuen baina zuen herrira bueltatzeko sorginkeria gaizki esan dut. Orain Txinan zaudete. Eta magia bakarrik nire asmakizunei erantzun bat ematen zaienean erabil dezakedanez honako asmakizun hau asmatu beharko duzue: <<Lepoa du, baino bururik ez. Gorputza du baina buru eta besorik ez, zer ote-?>>. Baina asmakizun hau ez da besteak bezalakoa, ez baituzue asmatu beharko bakarrik, aurkitu ere bai baizik".

Denak isilik geratu ginen. Halako batean Gorkak amorruren amorruez izugarritzko oihua bota zuen:

-Zergatik guri!

-Lasai, Gorka lortuko dugu etxera iristea- saiatu ginen kontsolatzen.

-Gainera, begira zer ordu den, arratsaldeko zazpiak. Egun bat daramagu etxetik kanpo- jarraitu zen kexatzen Gorka.

-Hoberena laguntza eskatzea izango da, asmakizun hau ez baita batere erraza- proposatu zuen Jonek.

Ondotik pasa zitzaigun gizon bati galdetzea erabaki genuen.

-Aizu, lagunduko al zeniguke...-hasi zen Aizpea.

Baina txinatarrak, harridurazko aurpegi bat jarritz, bere bidea jarraitu zuen.

-Desatsegina!- oihu egin zion Enekok.

-Ez, Eneko, utz ezazu. Ez du gure hizkuntza ulertzen- jakinarazi nion.

-Egia da- onartu zuen.

Baina orduan txinatar bat hurbildu zitzaigun. Irribarre handi batez esan zigun:

-Kaixo ume euskaldunak. Hitz egiten entzun zaituztet eta ezin izan dut zuei ezer esan gabe geratu

-Nolatan dakizu euskaraz?- galdetu zion Jonek.

-Ni Euskal Herrian egon nintzelako bi urtez- erantzun zion.

-Ongi. Guk Euskal Herrira bueltatzeko honako asmakizun hau asmatu behar dugu: <<Lepoa du baina bururik ez gorputza du baina hanka eta besorik ez, zer ote?>>.

Txinatarra pentsatzen geratu zen. Minutura esan zigun:

-Ez da batere erraza. Goazen nire etxera, eta han te bat hartzen hobeto pentsatuko dugu.

Bere etxera iritsitakoan, egongelara joan eta esan bezala te bat atera zigun bakoitzari.

-Baina zergatik asmatu behar duzue asmakizun hori?-galdetu zigun.

Orduan guk historio guztia kontatu genion.

-Hori entzuten duen edozeinek eroak zaudetela pentsatuko du, baina sinesten zaituztet.- erantzun zigun-
Baina asmakizun hau nire bizitzan entzun dudan asmakizunik zailenetako bat da.

Orduan lekutik altxa eta liburu zahar eta lodi bat ekarri zigun.

-Liburu honetan munduko asmakizunik zailenak daude. Nik lagunduko dizuet. Agian erabilgarria izango zaizue- esan zigun eta berriro joan egin zen.

Arratsalde osoa egon ginen liburuan kontzentraturik. Baina, azkenean, amore eman eta liburua irakurtzeari utzi genion. Txinatarrak afaltzera gonbidatu gintuen. Platerak jartzen ari zen bitartean gu asmakizunean ari ginen pentsatzen.

Afaltzen hasi ginenean, Eneko ura botatzen hasi zen guztion edalontzietara botilatik. Orduan, Gorka, botilari begiratzen geratu zen aurpegi serioarekin.

-Zer gertatzen zaizu, Gorka?-galdetu nion.

-Uste dudala erantzuna badakidala. Begira ezazue botila. Lepoa bai baina bururik ez, gorputza bai, baina besorik eta hankarik ez.

-Izan liteke bai, baina hoberena liburuan egiaztatzea izango da- esan zuen Aizpeak.

-Egia da, ez baitut nahi beste aldikoa gertatzea- esan zuen Jonek.

Afaldu ondoren liburua hartu eta begiratzen hasi ginen. Txinatarrak ordu erdi bat pasa ondoren erantzuna ziurtatu zigun. Erantzuna botila zen!

-Bai!- oihukatu genuen denok.

Orduan txinatarra agertu zen.

-Aurkitu dugu erantzuna. Botila!- esan nion.

-Egia da!-onartu zuen harriturik txinatarrak.

-Beno, agur esateko garaia iritsi da- esan genion txinatarri.

-Bai arrazoi duzue. Agur eta ea noizbait berriro ikusten garen- esan zigun.

-Agur- esan genion guk ere.

-Bat, bi eta hiru, botila!-oihukatuz desagertu ginen

Agertu ginenean parkeko hondarrean geunden etzanda. Jadanik abentura bukatua zegoen. Edo gutxienez hala espero genuen.

-A zer abentura!- esan zuen Jonek.

-Bai, inoiz ez dut ahaztuko gaur gertatutakoa- esan nuen nik.

-Baina egun berdina da, eta baita ordua ere!- esan zuen harriturik Gorkak.

-Berdin zait hori! Ni etxera noa!- esan zuen Aizpeak.

-Baita ni ere!- Jonek.

-Eta ni- Enekok

-Ba orduan gu ere bai!- esan genuen Gorkak eta biok batera.

Hurrengo egunean denok, ohi bezala, eskolara joan ginen.

Arratsaldean, eskolatik ateratakoan, Gorkak kirolen saila begiratu nahi zuen egunkarian. Horregatik taberna batera sartu eta munduko orriale batean ireki zuen egunkaria.

-Begira zer jartzen duen hemen!- esan zuen Enekok.

Orduan irakurtzen hasi zen:

"Txinan hiru mutil lanparatxo baten bitartez desagertu egin dira. Oraindik ez dakigu nora joan diren, baina pistak bilatzen ari dira detektibeak".

-Gure lanparatxoaren gauza izango da seguruenik!-esan zuen Gorkak, ordurako kirolen saila begiratzeaz ahazturik zegoena.

-Baina guk ezin dugu ezertxo ere egin!- esan zuen Jonek sorbaldak jasoz.

Ondoren parkera joan ginen ohi bezala, eta halako batean hiru txinatar ikusi genituen lanparatxo bat eskuan zutela.

-Begira hori!-esan zuen Gorkak txinatarrak seinalatuz

-Goazen ea egunkariko txinatarrak diren egiaztatzerako!- proposatu nuen.

Orduan beraingana joan eta zer gertatu zitzaien galdetu genien. Baina beraiek ez ziguten ulertzen.

-Zer egiten dugu orain?- galdetu zuen Aizpeak.

-Badakit. Nire osaben etxebizitzean bizi diren txinatar batzuen semeari laguntza eskatu geniezaioke, duela bi urte etorri ziren- proposatu zuen Enekok.

-Bai!- oihukatu genuen beste guztiek.

Enekoren osabaren pisura joan eta txinatarren txirrinarra jo eta agertu zenean honako hau esan genion:

-Kaixo Takeshi. Zure laguntza behar dugu- hasi ginen esaten.

Ondoren lanparatxoarekin gertatutako guztia azaldu genion.

-Ongi lagunduko zaituztet- esan zigun.

Orduan parkera joan eta txinatarren bila hasi ginen. Azkenik, banku batean eserita aurkitu genituen. Takeshik ondo zekien egin behar zuena. Txinatarrez hitz egiten hasi zen beraiekin eta ondoren, guri, gertatu zitzaiena kontatu zigun.

-Zuei gertatu zitzaizuen da.

-Galde iezaiezu zein den asmakizuna- esan zion Aizpeak Takeshiri.

Berrito txinatarrez hitz egiten hasi zen beraiekin. Halako batean txinatarrek harridurazko aurpegia jarri zuten. Baina geroxeago hitz egin zuten.

-Harriturik geratu dira asmakizunarena esan dietenean, baina gero hau esan didate: "Ez naiz ezer eta badut izena, beti nabil zurekin nahiz izan argala edo gizena?"- esan zuen Takeshik.

-Hau pena! Asmakizun hori da hasieran egin zigutena. Baina orain asmatuko dugu, ziur egon- esan nuen.

-Ez da hain zaila! Gainera erantzuna badakidala uste dut- zioen Takeshik irribarre bat ahoan zuela.

-Ba al dakizu?- galdetu zion Gorkak.

-Bai.- erantzun zuen besteak.

-Esan ba!- egin zuen oihu Gorkak.

-Uste dut itzala dela- erantzun zuen Takeshik.

-Egia da!- esan genuen burarekin baietz eginez- Zer tentelak izan garen!

Ondoren, gure lagunak txinatarrei esan zien. Txinatarrek saltoka hasi ziren esaten ari zenarekin. Ondoren makurtu, eta altuan hitz arraro bat esanez, desagertu egin ziren. Gero, itsasora joan eta han lanparatxoa uretara bota genuen.

-Lortu dugu!- esaten hasi zen Jon- baina, bereziki, Takeshik lortu du, bera gabe ez baikenuen ezer egingo.

Gero Takeshiri bere etxeraino lagundu genion.

-Eskerrik asko denagatik- eskertu genion guztiok.

-Ez da ezer izan- esan zuen Takeshik lotsaturik.

-Beno beste bat arte!-esan genion.

-Berdin!-erantzun zigun.

Ondoren bakoitza bere etxera joan ginen, eta egun hartatik aurrera ez dugu lanparatxoaz gehiago jakin. Buzeatzera joaten bazoazte, kontuz ibili lanparatxo bat ikusten baduzue.

Agian guri gertatutakoa gertatuko zaizue eta.